



SARRERA

Haur Hezkuntza garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Haur hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek girotze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira. Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



ARTOTERAPIAKO GAILUA

JARDUERA MOTA

Jarduera gidatua, dinamikoa eta esperimentalala

LEKUA

Gela

EDUKIA

Artotik eratorritako hitzak

Artoa (*Zea mays*), Amerikaren aurkikuntza ostean ekarri zen Europara. Europan bagenituen mota honetako beste zekaleak, hala nola, artatxikia, baina artoak bete zuen hauen lekua gure dietan.

Arto landareak, artasoroetan landatzen dira eta landare bakoitzak 10 artaburu ematen ditu. *Artaburu* bakoitza *arto-hosto*ez bilduta egoten da eta puntan *arto-bizarrak* ditu. Artoak milaka *arto-ale* edukitzen ditu eta aleak kendu ostean, hau da, artoa *aletu* ostean, *lokotsa* geratzen da.

Artoa kanpotik ekarria izan den arren, oso gurea dugu, zeren taloak berarekin egiten dira eta nola ez, krispetak ere bai!

Artoaren hiztegia

- Artasoro
- Arto-landarea
- Arto-hostoak
- Arto bizarrak
- Lokotsa
- Aletzea



ZER LANTZEN DA

- Jarduerarekin gozatzea
- Motrizitate fina
- Txandak errespetatzea
- Hiztegi berria eskuratzea
- Adimen emozionala garatu, emozioak identifikatuz eta izena jarriz
- Ahozkotasuna
- Pentsamendua, hausnarketa eta gauzen azterketa: irakaslearen galderen bidez



MATERIALA

- Ontzi bat
- Artaburuak
- Yogur potoak (ikasle adina)

Artaburuak lortzea ez da erraza izaten gaur egun, aletutako artoa lortu daiteke eta tailerraren hasierako zatia (aletzea) ez egin. Edo Kutxa Ekoguneko hezitzaileei bi artaburu eskatu.

DESKRIBAPENA

Artoterapia gailua erlaxatzeko bikaina da! Horretarako, gailua gelan lasaitasunerako txokoan kokatu dezakegu edota ikasleen parte hartzearekin txoko hori prestatu. Artoterapia gailuan eskuak sartzean, ukimenaren bidez, erlaxatzeko aukera dago. Modu honetan, beraien lasaitasuna kudeatzen ikasten hasiko dira.

Motrizitate fina eta lodia lantzen dugu, elementu naturalak erabiliz eta taldean guztiok giro on batean bilduta. Gailua sortzeko talde osoaren parte hartzea ezinbestekoa da; gainera jarduera lasaia eta motrizitate fina lantzeko ezin hobea!

Ikasleak borobilean bilduko dira, giro lasaia egotea komeni da. Bakoitzari yogur poto bat eta artaburu bat emango zaio eta artaburua aletzen hasiko dira. Yogur potoa bete adina, erdiko ontzian hustuko dute.

Ontzia bete ostean ikasleek artoterapia gailua frogatuko dute. Haur bakoitzak bere txanda izango du eskuak sartzeko eta ukimenaren bidez arakatzeko. Ondoren, bakoitza eskuak gailuan sartzean zelan sentitu den adierazteko aukera izango du. Irakasleak galdera irekien eta adibideen bidez eztabaidatzeko tarte bideratuko du. Adibidez; *“Zer sentitu duzue eskua artoan sartzean? Artoaren tenperatura nolakoa da? Nola sentitu zarete eskuak sartzean?”*

Amaitzeko, denen artean honen kokapenaren erabakia hartu eta nahi beste erabiliko da.



Artoterapia gailua ere, gauzak izkutatu eta ikasleek eskuen pertzepzio bidez aurkitzeko ariketa bezala ere erabili daiteke.

